

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Astezkena, 2012ko martxoaren 21a. IX. urtea. 2.380. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Erabilera anitzeko eraikinak, herritarren eskura

Baliarraingo eta Alkizako udal arduradunek hainbat jarduera egiteko azpiegitura berriak inauguratu dituzte bizilagunekin batera **03**




Goiko irudian, Baliarrain, eta, behekoan, Alkiza. I.T.-I.G.L.

Joxemari Iturralde Idazlea

## «Badaude argitaletxeak eta liburuak, irakurle gehiago behar dira, ordea»

Iturraldek gaztetxoei zuzendutako 'Frantzian Je t'aime esaten dute' liburua argitaratu berri du; «idazteko modua, teknika, estiloa... dena aldatzen da gazte literatura egiterakoan», dio idazle tolosarrak **04**



LORRIZZI

## Algero: «Uholdeak direla eta, Nafarroako Gobernuak onartutako laguntza ez da nahikoa»

Aresoko Ur Algero alkateak azaldu duenez, pasa den azaroan jasandako kalteen %18 bakarrik erreparatuko luke Nafarroako arduradun politikoek onartutako laguntzek **07**

Anjel Cuervo  
Bidaiaia

«Ibaiek gizadiarentzat izan duten garrantziaz ariko naiz hitzaldian»

Amalur jardunaldien barruan hitz egingo du gaur, Tolosako Topic zentroan

Elkarrizketa **02**



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

### Antzezlanak

Martxoak 23 • Ostirala  
20:30ean  
Tolosako Leidorren



harpidedunentzat **TXOKOA hitza**

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du

### Kontzertua Patxi Saiz

Martxoak 24 • Larunbata  
18:30ean  
Tolosako Topic-en



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du



### LAGUN ARO GBC Real Madrid

saskibaloia partida

Martxoak 25 • Igandea  
18:00etan  
Donostiako Ilunben



sarrerak

**Irudia** ◊



**EUSKARA DIRUZ LAGUNDUZ**

Tolosako Udalak hiru hitzarmen sinatu ditu euskararekin lan egiten duten Gipuzkoako Bertsozale Elkartarekin, Badihardugurekin eta Kontseiluarekin. Kontseiluak 7.000 euro jasoko ditu, GBEk 26.000 euro, eta Badiharduguk 5.920 euro. IMANOL GARCIA LANDA

**Irudia** ◊



**ESKUALDEA SEVATUR-EN**

Pasa den asteburuan izan zen Sevatur, Donostiako Nazioarteko Turismo Azoka. Kursoalean ospatu zuten azokan, Tolosaldeak bere txokoa izan zuen Gipuzkoari eskainitako postuan, eta bisitari bakoitzari egokitutako irteerak eskaini zituzten. HITZA

→ **Laburrak**

**Errepublikar taldea sortzeko bilera, gaur**

**GIZARTEA** › Iaz Errepublikari omenaldia egiteko zenbait ekitaldi antolatu zituen tolosar talde batek. Hura abiapuntu hartuta, errepublikazaleen taldea sortu nahi dute, «inongo alderdirekiko loturarik gabea», kultur talde moduko bat. Taldea eratzeko, bilera deitu dute gaur iluntzean, 20:00etan, Antonio Maria Labaien kultur etxean.

**SOS Ume lapurtuak taldearen bilera**

**GIZARTEA** › Larunbat honetan, martxoak 24, SOS Ume lapurtuak taldearen Tolosaldeko bilera izango da, 10:30ean, San Juan kaleko Iturriza elkartean. Auzi honek Asuncion, San Cosme eta San Juan kliniketan eragin zien guztiei egin diete bilerarako deia.

Anjel Cuervo • Bidaiaria

«Guztiok gara ikusten dugunaren ondorio, eta bidaiaria bakoitzak zerbait eskaini dit»

**I. Urkizu**

Amalur jardunaldien barruan, *Munduko ibaietan barrena* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30ean, Topic aretoan, Anjel Cuerdok (Tolosa, 1973).

**Munduko hainbat ibai izango dira gaur kontatuko duzunaren oinarri.**

Bai. Ibaiak jaisten zergatik hasi nintzen kontatuko dut, eta ibaiak gizadiarentzat izan duten garrantziak ere ariko naiz: kultura gehiena ibai baten altzoan sortu direla, esaterako. Kontinentez kontinente, ibai bakoitzaren bitxikeriak hizpide izango ditut, eta bereziki piraguan zeharkatutako ibaiak ere ariko naiz.

**Egindako bidaietan hainbat gauza ikasiko zenituen. Horrek zure eguneroko bizitzan eragin al dizu?**

Bai, noski. Azken finean, guztiok gara eguneroko ikusten dugun ho-

rren ondorio, eta bidaiaria bakoitzak zerbait eskaini dit; bai hausnartzera behartzen gaituzten alde negatiboak, eta baita esperientzia oso positiboak ere. Horrek guztiak, noski, eragina du nire izaeran.

**Gaztetatik izan duzu bidaiatzeko azaletasuna. Nolatan hasi zinen?**

14 urterekin hasi nintzen nire kontura bidaiatzen, eta Tolosan, ni baino askoz lehenago ere makina bat jende aritu izan da hitzaldiak eta eskaintzen, eta gurasoekin joaten nintzen entzutera. Txikia nintzenean, gainera, jendea Nairobitarra autobus koloretan kanpora nola joaten zen ikusten nuen. Horrek guztiak eragin zidan bidaiatzeko grina, eta pixkanaka, nire proiektu txikietatik abiatu eta proiektu zabalagoetara joan nintzen. Hasieran, aurreztuta nuen diruarekin Lon-



HITZA

dresera joan nintzen, eta demborarekin eremuak zabaltzen eta bidaiaria luzeagoak egiten hasi nintzen. leku asko ikusi beharrean, eremu bat sakonago ezagutzeko. **Hurrengo bidaiaria aurreikusial duzu?** Nire semeekin eta hauen aitona-

amonekin Nilo ibaiaren inguruetara joango naiz laster. Ez gara piraguaraz eta bizikletaz ibiliko, modu tradizionalagoan egingo dugu bidaiaria, egoera ere desberdina delako, baina semeek sekulako ilusioa dute hara joateko.

**Oargi elkarteko kideek Vianako upategi batera irteera antolatu dute**

**I. Urkizu**

Oargi mendi elkarteak ibilaldia eta bazkaria antolatu du larunbaterako. 08:00etan abiatuko dira Usabaletik, eta Bernedoraino (Araba) joango dira. Handik, Peña Alta mendira igoko dira (1.245 m), eta La Población mendia (1.245 m) igoko dute ondoren.

Bazkaria Vianako (Nafarroa) Rioja Vega upategian egingo dute, 35 euroren truke. Autobusa, berriz, 15 euro ordaindu beharko du bakoitzak. Bihar izango da ize-na emateko azken eguna. Horretarako, 20 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutzako 3035 0028 11 0281141038 kontu korrantean.

**Izeba proiektuaren informazio bilera antolatu du Baketik zentroak**

**I. Urkizu**

Arantzazuko Baketik zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009an martxan jarritako Izeba proiektuaren informazio saioa izango da Tolosako kultur etxean, bihar, 19:00etan.

Egitasmoaren muina, Gipuz-

koan bakarrik dauden adingabe-ei familia erreferentzia bat eskaintzea da, «iloba bati eskaintzen zaion hurbileko tratua emateko». Familia boluntarioek astean behin etxera bazkaltzera, nahiz txangoetara gonbidatu beharko dute adingabea, eta era berean, adingabe horrek izan ditzakeen arazoak konpontzen lagundu ere.

Bihar iluntzean kultur etxean izango den informazio bilera gain, egitasmoaren inguruko informazio zabalagoa eskuratzeko, 943 25 10 05 telefonora deitu daiteke, eta baita [www.izeba.org](http://www.izeba.org) webgunera bisitatu ere.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Eraikinak, erabiltzeko prest

Alkizan eta Baliarrainen erabilera anitzeko eraikinak inauguratu berri dituzte; hainbat zerbitzu emango ditu azpiegitura bakoitzak

Hurrengo pausoa eraikinak edukiz betetzeari dela diote bi udalerrietako alkateak

## I. Garcia Landa-I. Terradillos

Ekualdeko bi herritan erabilera anitzeko eraikinak inauguratu berri dituzte. Alkizan, udaletxearen ondoan dagoen Don Jaunena etxea eraberritu eta hainbat zerbitzu emateko egokitu dute. Baliarrainen, udaletxearen atzean eraikin berria egin dute, honetan ere, hainbat zerbitzu emateko asmoz.

Alkizako Don Juanenan, beheko solairuan, medikuarentzako kontsulta kokatu dute. Aldameanean, soinketa gela egokitu ahal izan dute. Lehen solairuan, berri, erabilera anitzeko gela handi bat jarri dute. Horrez gain, beste bi gela daude: elkarrekin bilerak egin ahal izateko eta adinekoak elkarrekin. Azken honek ondoan sukalde txiki bat dauka. Bigarren solairuan larrialdietarako bi etxebizitza daude. Azkenik, teillatu azpiko solairuan bi gela egokitu dituzte. Horietako bat ikasgela bezala atondu dute, eskolaz kanpoko klaseak emateko; bestean, lau ohaxka jarri dituzte.

Don Juanena etxea eraberritzeko lanak 2010eko azaroan hasi ziren eta 700.000 euro bideratu dira lan horretarako. Gipuzkoako Foru Aldundiak 425.000 euro jarri ditu; Alkizako Udalak jarri ditu beste 275.000 euro, hauetatik 185.000 euro Erein egitasmoaren bitartez eta beste 50.000 euro Kutxak eman ditu.

Lana egin ahal izateko eraikina erabat hustu dute eta barrualdea osorik berritu dute. Fatxada eta arotzeria guztia berritatzear gain, teillatu ere aldatu egin dute. Era berean, igogailua jarri dute, udaletxearentzako ere balioko duena.

Don Juanenaren inaugurazioan, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta herriko agintariak, eta Kutxako ordezkaria izan ziren. Jon Umerez alkateak esan zuenez, «orain edukiz bete behar da eraikina. Aurrera begira herriko talde eta elkarteekin bilerak egingo ditugu, martxan jarri eta erabilera sustatzeko». Juan Karlos Alduntzin Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko diputatuak ondo ezagutzen zuen Don Juanena etxea eraberritu aurretik, Alkizako eskolan irakasle plaza baitu, eta eraikina eskolaren biltoki bezala erabiltzen baituzten. «Orain diruz ez bada ere, herri txikiei laguntzen jarraitzeko asmoa du aldundiak», esan zuen Alduntzinek.

Jon Roteta aurreko alkatea eta Rafa Uribarren Landa Garapeneko diputatu ohia inauguraziora gonbidatu zituzten eta eskerrak eman zizkieten, aurreko legealdian landu baitzen erabilera anitzeko eraikinaren proiektua.

### «Bizia eman behar zaie»

Baliarraingo eraikinaren inaugurazioan, herritar ugari izan ziren. Bertan, Martzelino Dorronsoro alkateak «hainbeste itxarondako» eraikina dagoeneko errealitate dela esan zuen. Proiektuaren atzean, pertsona ugariaren lana eta hainbat erakunderen diru laguntza dagoela gogoratu du, eta eskerrak eman dizkie guztiei. Eraikin berriarekin, herriak zuen gabezia beteko dutela azaldu zuen Dorronsorok, «herritar guztiei irekia izango den gunea izango baita». Hala, azpiegiturak bai bilerak egiteko, bai eta antzerkiak edota bestelako ikuskizunak egiteko proposak diren gelak di-



Baliarraingo erabilera anitzeko eraikinaren inauguraziora herritar ugari joan ziren. I. TERRADILLOS



Baliarraindarek eraikinaren gela berri izan zuten. I. T.



Alkizako Don Juanenan, medikuaren kontsulta. I.G.L.



Ezkerrean, Alkizako Don Juanenaren inaugurazioan izandako agintariak; eskuinean, jubilatuentzako gela. I.G.L.



tuela adierazi zuen. Herritarrek «pozik» azaldu ziren eraikin berriarekin. Orain, Dorronsorok aitatu bezala, «hutsik dauden gela hauek hornitu eta bizia eman behar zaie».

Udaletxearen azpiko aldeko lur zatia kendu, eta bertan altxatu dute zazpi gela dituen eraikina. 1.100.000 euro inguruko kostua izan du, eta Erein egitasmotik 416.000 euroko laguntza jaso du. Adineko eta gazteentzako dina-

mizatzeko gela, herriko hiruzpatalau baserriarrek duten belar elkarreentzako gela eta askotariko ekitaldiak egiteko egokia den eta bitan banatzen den gela handi bat ditu. Era berean, beste gela bat udaletxeko artxiborako erabiltzeko dute. Udaletxera zuzenean bertatik joateko aukera ere eskaintzen du, igogailuaren bidez. Horrez gain, alokairuan jarriko dituzten bi lokal ere baditu, edonork bulego edota lantoki bezala

erabiliak izateko. Horretarako, Tolosaldea Garatzenen bidez, maizterrak aurkituko dituzte.

Udaletxearen atzealdean, eta eraikin berriaren goiko zatian eraiki duten plaza berrian, haurrentzat parkea jarri dute, eta baita bertan lasai egoteko aulkiak eta babestokia ere. Haur eskolara sarbidea du, eta albo batean, inguruko mendien eta herriari buruzko informazioa ematen duen panela ere jarri dute.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Korreo kalean, 67m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Egoera onean dago; be-

rritua dago igogailua dauka.

Deitu 653 708836 zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Zaldibian etxebizitza berriak martxan.

169.500 eurotik aurrera, garratea eta trastelekua barne. Interesatuek deitu 669 82 70 96 telefono zenbakira.

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



**Joxemari Iturralde** >  
Idazlea

Gazte literaturari begira jarri da beste behin ere idazle tolosarra argitaratu berri duen 'Frantzian Je t'aime esaten dute' lanarekin.

«Egunero lan egin behar da, eta horri deitzen zaio inspirazioa»

**Itzea Urkizu**

Joxemari Iturralde (Tolosa, 1951) duela 35 urte Bilbon sortu zen Pott banda literarioko kideetako bat izan zen. Bernardo Atxaga, Manu Ertzila, Ruper Ordorika, Jon Juaristi eta Joseba Sarrionandiarekin batera hasi zuen bide hari jarraitu dio idazle eta irakasleak, eta gaztetxoentzako argitaratu berri duen liburuaz aritu da **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN**.

**Argitaratu berri duzu 'Frantzian Je t'aime esaten dute' liburu. Zer kontatzen duzu bertan?**

Gazte batzuen gorabeherak kontatzen ditut liburu honetan. Beren gurasoek Frantziara bidali dituzte oporretan, frantses hizkuntza ikas dezaten, eta esperientzia horren berri ematen dut nobela honetan.

**Pedro Osés margolariak egin ditu liburuko irudiak. Lehenago ere marrazkirik jarri al dio zure lanen bati?**

Bai, Pedro Osés margolari eta marrazkilari handia da, oso ezaguna. Lehendik ere lan egin izan dugu elkarrekin; *Ijitoak dauzkate etxean* eta *Sute handi bat ene bihotzean* liburuetako ilustrazioak berak egindakoak dira. Zorte hori izan dut.

**Lehenago ere, haur eta gaztetxoentzako hainbat lan idatzitakoak zara. Zein da hartzen duzun abiapuntua, gazteentzako idazterakoan?**

Idazteko modua, teknika, estiloa, ... Dena aldatzen da gazte lite-


ratura egiterakoan. Oso desberdina da helduentzako edo gazteentzako lan egitea, eta beti izan behar da gogoan norentzat idazten ari zaren. Erabilitako hiztegia, pertsonaien sakontasuna, gertakizunen katramila, ... Guztia har tu behar da kontuan.

**Irakasle izateak nolabait laguntzen al dizu landu beharreko gaiak aukeratzekoan?**

Bai, zalantzarik gabe. Hainbeste urtetan gazteekin lan egin izanak zer nolako gustuak dituzten, liburuak irakurtzeko zentzuerainoko ohitura duten, nolako hizkuntza trebezia duten, asko edo gutxi irakurtzen duten, nahiz zer nolako literatura erreferentziak dituzten jakiten laguntzen du.

**Liburu honetan, protagonistak bere herrian ikusi gabekoak ezagutzen dituzte: hizkuntza, ohiturak, bizimodua, jendearen izaera, lehen munita, ... Istorio honekin zer helarazi nahi izan duzu?**

Adina oso garrantzitsua da. Nera-bezaroko urte horietan hainbat gauza berri ikusten eta ikasten dira. Gaztetxoek jada badakite haurrak ez direla Paristik etortzen; badakite zer den maiteminduta egotea; badakite zer den lehen amodio porrota izatea; badakite oso bestelakoak direla gazteen eta helduen munduetan gertatzen diren gauzak; badakite gauza asko ezin direla esan edo ezkatatu egin behar direla, ... Eta hori guztia, gainera, beste mundu ezezagun batean gertatzen bada,



ITZEA URKIZU

kasu honetan Frantzian, guztiak hartzen du halako itxura berri bat, eta bizipen guztiek dute indar berezia.

**Teknologien aroan, ez da erraza gaztetxoak liburuetara erakartzea. Nola ikusten duzu egoera, idazle eta irakasle zaren aldetik? Zer behar du literaturak, liburu batek, gaztetxoak erakartzeko?**

Liburu batek interesgarria izan behar du, erakargarria izan behar du, indarra eduki behar du, tiradizoia izan. Eskola garaian, gainera, garrantzia berezia du irakaslearen lanak. Izan ere, irakasleak jakin egin behar du ikasleari literatur zaletasuna txertatzen, liburu egoki hori ikaslearen eskuan jartzeko zubi lanak egiten, bere gustuaren eta zaletasunaren arabera.

**Idazleari esfortzu berezirik eskatzen al dio, zerbaitetan nerabe baten begietatik idazteak? Hizkuntzaren estiloa aldatu beharko da, ezta? Nola lantzen duzu hori?**

Hori idazlearen profesionaltasunak eta teknikak lortzen du, urteen poderioz lor daiteke. Hortxe antzematen da idazlearen trebezia.

**Zein dira gazteentzako eta helduen-**

**tzako literatura egitearen desberdintasun nagusiak?**

Lehen azaldu dudan moduan, guztia aldatzen da: teknika, hizkuntzaren erregistroa, pertsonaien sakontasuna nahiz argumentua bera.

**Euskal literaturak olatu gainean dagoela ematen du Durangoko azokan. Egiazki, ordea, osasuntsu al dago sektorea?**

Durangoko azoka urtean behin izaten da, eta lau egunez besterik ez. Nire ustez, ordea, urte osoan



Idazteko modua, teknika, estiloa, ... Dena aldatzen da gazte literatura egiterakoan»

«Badaude argitaletxeak eta badaude liburua, baina irakurle gehiago behar ditugu»

**JOXEMARI ITURRALDE**  
Idazlea

irakurri behar da. Badaude idazleak, badaude argitaletxeak eta badaude liburua, baina irakurle

gehiago behar ditugu, nola gazteak, nola adinekoak.

**Zer egin liteke euskal hiztunak euskal literaturara gehiago erakartzeko?**

Hainbat arlo eta eremutan lan egin behar da horretarako. Guk, idazleok, liburuak idatzi egiten ditugu. Gero, ordea, erakundeek, instituzioek, udalek edo kultur taldeek jarri behar dute martxan, liburu irakurlearengana iritsi dadin.

**Idazterakoan, ba al duzu inspirazioa sortzen dizun txoko berezirik?**

Etxean idazten dut, batez ere, nire estudioan. Eta inspirazioa lana da, ez dago besterik; lana, formakuntza eta ilusioa. Askok ikasi behar da, asko irakurri, eta gero, saiatu. Egunero lan egin behar da, eta horri deitzen zaio inspirazioa.

**Zein aholku emango zenioke sormena duen hasiberri bati?**

Irakurri egin beharko du etengabe, beste idazleek urteetan idatzitakoa, eta horrela, ikasten hasi. Irakurzaletasuna baldin badauka, ez zaio aholkurik eman behar. Baina zaletasunik ez baldin badauka, ere ez. Idazle berriak berez atera behar dira, aterako badira.

**Zatuz bizilagun berriak ezagutzera.**  
SICOS ek 2012/03/22 an 19:00tan zabaltzen du.


Orduetarako SICOS era, Adituak gara Apple markarekin erlazioaturiko gutxien, beraz, bere produktu eta osagarriak eskaintzeaz gain, etekina ateratzen lagunduko dituzten esagupenak ere baditugu. Inguratu zaitez gure denda berrira eta ezagutu ezazu Apple familia.

**(SICOS)**

Martxoak 22, 23 y 24n %10ren deskontua izango duzu zure Mac ordenagailua erostean.

**(SICOS)** San Martin 9, 20005 Donostia - [www.sicos.es](http://www.sicos.es) Tlf.: 943 441 279

© 2012 Apple Inc. Informazio gehiago: "11" den telefonoaren ezarpena gurekin erabiltzeko helburuak dituzten gurekin, baina Martxoak 22, 23 eta 24an (24h) 10% de Descuento erosten dituzten Mac ordenagailuak erosten dituztenak bakarrik.



Villabonako Berdura plazan hasi zuen kanpaina Tolosaldeko Mankomunitateak, atzo. E. MAIZ

## Beira birziklatzeko kanpaina abiarazi du Tolosaldeko Mankomunitateak

Eskualdeko hainbat herritan informazio puntuak jarriko dituzte; gaur Irurako txanda izango da, 17:00etan

Rebeka Calvo

Tolosaldeko Mankomunitateak beiraren gaikako bilketaren inguruko sentsibilizazioa bultzatu asmoz, kanpaina bat abiarazi du, elementu honen birziklatzea bultzatzeko. Ecovidrio erakundearen laguntzarekin batera diseinatu du kanpaina, eta helburuak beira birziklatzea eta jasotakoaren kalitatea hobetzea dira. Horiek horrela Iruran, Ibarren eta Alegian informazio puntuak jarriko dituzte, atzo jarri zutelarik lehen puntua, Villabonako ber-

### ↓ Kanpaina

#### HITZORDUAK

- **Gaur, martxoak 21.** Irurako plazako haur parkean izango dira, 17:00etatik 20:00etara.
- **Bihar, martxoak 22.** Ibarrako plazan, 16:30etik 19:30era.
- **Etzi, martxoak 23.** Alegiako ikastetxean, 16:00etatik 19:00etara.

#### EDUKIONTZI BERDEA

- **Edukiontzi berdera bota behar dena.** Soilik beirazko botila, pota eta ontziak. Zeramika, por-tzelana, ispiuak, leihotako kristalak, bonbilak, fluoresenteak, tapak, tapoiak, txapak, kortxoak eta plastikoko poltsak ez dira bota behar.

dura plazan. Haur ugari izan ziren, eta informazioa jasotzeko aukera izan zuten jolasen bidez.

Tolosaldeko Mankomunitateak azaldu duenez, kanpaina biztanleria osoari zuzendu dute eta informazioa puntu ibiltari batean oinarritzen da. «Informazio puntu honek, beiraren edukiontzi berdera bota beharreko beira ontzien inguruan hainbat galdera dituzten herritarrei informatzea du helburu: beira %100 birziklagarria den materiala da, beiraren birziklapen zikloa, edukiontzi berdean utzi behar dena eta ez dena, norbanakoak beiraren birziklapenaren zikloan duen garrantzia...», esan dute.

Informazio puntuetara gerturatzan direnek azalpen guztiak jasoko dituzte, eta birziklatuz egingako piezekin bitxiak egin ahal izango dituzte.

## Anoetako Udala hasi da herriko festetarako prestakuntza lanetan

Eskualdeko artistak jaietan egiten duten erakusketan parte hartzerako animatu nahi ditu

R. C. Anoeta

Anoetako Udala hasi da herriko festak antolatzen, eta bi aldealdi egin ditu: erakusketan parte hartzeko deia egin du, eta kartel lehiaketan parte hartzeko lanak aurkezteko epea ireki du.

Horiek horrela, udalak eskualdeko artistei udaleko areto nagu-

sian antolatu ohi duten erakusketan parte hartzeko deia egin die. Erakusketa ekainaren 2tik 10era egongo da zabalik, eta parte hartu nahi dutenek apirilaren 20a baino lehen deitu behar dute udaltxerara.

Bestalde, jaiak iragartzeko kartel lehiaketa ere abiarazi du udalak. Lanak aurkezteko epea apirilaren 23an amaituko da, 13:00etan, eta udaletxean edo liburutegian utzi behar dira. Epai-mahaiak apirilaren 27an emango du, beranduenez, irabazlearen izena. Lehiaketako arau guztiak [anoetaldea.hitza.info](http://anoetaldea.hitza.info)-n daude ikusgai, albiste honekin batera.

## Kafe tertulia egingo dute Bidegoianen, gaur

R.C. Bidegoian

Bidegoiango Gizarte Zerbitzueta-ko arduradunek azaldu dutenez, kafe tertulia egingo dute hilean behin, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu asmoz. Udaran, dena den, atsedena hartuko dute, eta irailetik aurrera jarraituko dute. Lehen saioa gaur izango da, 14:30ean, erabile- rantzeko gelan, eta Ana Ellosegi psikologoak gidatuko du. Hurrengo saioak apirilaren 24an eta maiatzaren 29an izango dira.

Ekimena Berdintasun planaren barruan kokatu behar dela dio udalak.

## ASTE HONETAKO ESKAINTZAK!

### 1 IDRA KOLTXOIAK

Ibaiondo, 15  
20271 IRURRA  
Tel.: 943-69 16 77



MARTXOAK  
3IARTE

**BI BURUKO BISKOLASTIKO**  
70zm-ko neurrian  
LEHEN PREZIOA: 70 €  
DESKONTUA: %42  
ORAIN PREZIOA: 42€

**AURREZTU**

**28€**

ESKAINTZA

### 2 SHUYANA

ESTETIKA: Eskolapioetako Lorategiak, 3-1.A • TOLOSA  
Tel.: 943-67 54 89  
KOSMETIKA: Korreo, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943-67 14 68



**ZELULITISAREN KONTRAKO BONA**  
-%20

**HIDROTERAPIA BAINUA OPARI**

ESKAINTZA

### 3 TOLOSA INDOOR KARTING

Arzabaltza Industrialdea,  
20-37  
TOLOSA  
Tel.: 655 722 119  
[www.tolosaindoorkarting.com](http://www.tolosaindoorkarting.com)



**ITZULIAREN BEREZKO PREZIOA:**  
10 minutu, 13€

**HELDUENTZAKO ITZULIA**  
10€

**UMEENTZAKO ITZULIA**  
6€

ESKAINTZA

### 4 VILLABONA OPTIKA

Kale Berria, 23  
VILLABONA  
Tel.: 943-11 18 40  
[www.villabonaoptika.com](http://www.villabonaoptika.com)



**'EMPORIO ARMANI' MARKAKO EGUZKITAKO BETAURREKOETAN**

**%20ko DESKONTUA**

ESKAINTZA

Moztu dagokion kupoia, **aurkeztu** dendan eta **gozatu** abantailaz

## ESKAINTZAK!

# Loatzok udaberriari ongietorria emateko musika emanaldiak prestatu ditu

Loatzo musika eskolak martxorako prestatu ditu emanaldiak; kontzertuak eskainiz herriz herri ibiliko dira

**Eneritz Maiz**

Loatzo musika eskolak, udaberriari begira, hainbat musika instrumenturen kontzertuak eskainiko ditu Anoetan, Iruran, Altzon, Ibarren, Zizurkilen eta Villabonan.

Lehen emanaldia, dena den, pasa den asteburuan eskaini zuten, Zarautzen. Loatzo musika eskolako trikitixa eta biolineko 36 ikasle eta irakasle izan ziren Urola Kostako herrian. Aitor Lasa irakasleak esan duenez, lehen emanaldiko balorazio oso positiboa egin dute, izan ere «azkenean ikasleek beraien instrumentuaz disfrutatuta zuten. Sei ordu baino gehiago entseatzeko pasatzeaz gain, gustura ibili dira beste gazte batzuk ezagutzeko», esan du.

Larunbat eguerdian Zarautzeko kaleetara buelta bat ematera ere atera ziren. «Ikasleek beraien trikiti eta panderoak hartuta jaitxi nahi izan zuten. Sorpresa izan zen irakasleontzat eta kalean zebilen jendearentzat», dio Lasak. Igande goizean, lo gutxi eginda bazeuden ere, Lizardi aretoa eskaini zuten emanaldia eta aretoa bete egin zen.



Zarautzen pasa dute asteburua Loatzoko ikasleek. HITZA

## ↓ Martxoa musikala

### MARTXOAK 21, GAUR

■ **18:00.** Villabonako musika etxean biolinaren emanaldia.

### MARTXOAK 23, OSTIRALA

■ **19:00.** Zizurkilgo Atxulondo elkartean klarinete emanaldia egingo dute.

### MARTXOAK 26, ASTELEHENA

■ **18:30.** Irurako musika eskolan perkusio eta saxo emanaldia eskainiko dute.

### MARTXOAK 27, ASTEARTEA

■ **19:00.** Anoetako auditoriumean biolontxelo emanaldia izango da.

### MARTXOAK 28, ASTEAZKENA

■ **18:00.** Altzoko eskola azpiko aretoan gitarraren emanaldia izango da.

■ **18:00.** Ibarrao kultur etxean piano emanaldia izango da.

■ **19:00.** Anoetako auditoriumean tronpeteta, tronboia eta bombardinoaren emanaldia.

### MARTXOAK 30, OSTIRALA

■ **18:30.** Irurako musika eskolan txistu emanaldia egingo dute.

■ **18:30.** Anoetako auditoriumean, piano emanaldia.

### APIRILAK 24, ASTEARTEA

■ **18:00.** Villabonako musika etxean, gitarra emanaldia.

# Uraren egunaren harira txorrota ixteko eskaria egin dute

Herritar guztiak uraren kontsumoa murrizteko erantzukizuna dutela nabarmendu du Tolosako Udalak

**E. Maiz** Tolosa

Bihar, hilak 22, Uraren Munduko Eguna izango da. Tolosak zer esana duela eta, udalak, egun honen inguruan hainbat ekitaldi antolatu ditu. Eta egun hau ospatzeko helburuen artean, sentsibilizazioa dago.

Udaletik, uraren erabilerak eta ustiapenak, ingurumenean ondorioak dituztela ulertarazi nahi dute. Herritar guztiak, uraren kontsumoa murrizteko erantzukizuna dutela gogora ekarri dute, eta ibai eta erreken kalitate ekologikoa ezagutzeko, jasan dituzten kalteak eta egindako hobekuntzak baloratu nahi dituzte. Era berean, tolosarrak, etxeko ur kontsumoa murrizteko egintza xume batzuk praktikan jartzera inplikatzeko nahi dute.

Lehen ekitaldia gaur izango da, eta bihar eta etzi ere izango dira. Gaur, Ibiurko urtegiara bisita egingo dute, doan. Gipuzkoako Urak dituen instalakuntzak ikusiko dituzte: urtegia eta tratamendu planta. Tolosatik autobusez irtingo dira 09:00etan eta 12:30ak aldera egingo dute buelta.

Bihar, Trianguloko plazan uraren inguruko informazio puntua jarriko dute. Bertara hurbiltzen denak, eta gutxienez lau konpromiso hartzen dituenak, zurrusta-haustekoa jasoko du. Honela, bere etxean jarri, eta ur kontsumoa gutxituko du. Era berean, Tolosako ur kontsumoari buruzko datuak emango dituzte, eta baita ura murrizteko aholkuak ere. Gainera, jolas moduan galdera bat erantzun beharko da eta asmatzen dutenen artean bertako produktuekin betetako saski bat zozketatuko dute.

## ↓ Ekitaldiak

### MARTXOAK 21, GAUR

■ **09:00.** Ibiur urtegiara bisita egingo dute. Gipuzkoako Urak dituen instalakuntzetan bisita gidatua izango da. Urtegia eta tratamendu planta bisitatuko dituzte. 12:30ek aldera itzuliko dira.

### MARTXOAK 22, BIHAR

■ **09:00.** Trianguloko uraren inguruko informazio puntua jarriko da. Tolosako ur kontsumoari buruzko datuak emango dira. Bertara gerturatu eta lau konpromiso hartzen dituenak zurrusta-haustekoa jasoko du.

### MARTXOAK 23, ETZI

■ **11:00.** Samaniego ikastetxera bisita egingo dute. Haur Hezkuntzako eraikina bioklimatikotzat jotzen da, hau da, aurrezteko baliabideak eta eraginkortasun energetikoa ditu. Uraren zirkuitu bikoitza du.

Bukatzeko, hilaren 23an, ostiralean, Samaniego Haur Hezkuntzako eraikina bisitatuko dute. Eraikina bioklimatikoa da, eta aurrezteko baliabideak eta eraginkortasun energetikoa ditu. Udal eraikin honek, uraren kudeaketari dagokionean zirkuitu bikoitza du. Teilatuko ura bildu eta depositu batera bideratzen du, hortik komunak eta lorategietako ureztatze sistema hornitzen dira.

Bisitaren ordutegia 11:00etatik 12:00etara izango da, eta izen emateko Tolosako ingurumen zentrok 943 65 25 44 telefono zenbakira deitu beharko da.

Haur liburutegian, berriz, egun hauetan liburutegiara joaten direnentzat uraren inguruko liburu sorta bat egongo da eskura.

## Irudia › Alegia



# TXINTXARRI TXIKIKOAK, HONDARRIBIAN

Hondarribiko Portuko eliza jendez lepo bete zen igandean Haur Koruen VI. Tailerreko abeslarien kontzertua entzuteko. 7 eta 14 urte bitarteko 106 lagunek kantatu zuten, tartean Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzako 15 abeslarik. Asteburuan prestatutako kantuak jendaurrean erakutsi zituzten. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antola-

tzen du urtero tailer hori. Gipuzkoako abeslari gazteen artean musika eta harremanak lantzea du helburu. Bi taldetan banatuta lan egin zuten: txikiak Zaragozako Javier Garcesekin aritu ziren eta zaharrenak, berriz, Tolosako David Azurzarekin. Alegiako koruaz gain, Tolosako Hodei Truk abesbatzak ere parte hartu zuen. HITZA



Ibiur urtegia eta tratamendu planta bisitatuko dituzte, gaur. E. MAIZ



# «Nafarroako Gobernuak ez du uholdeek kaltetutakoak laguntzeko borondaterik»

Nafarroako bederatzi herrik salatu dute kalteen %18 erreparatzeko laguntza baino ez dutela jaso

**Iñigo Terradillos**

Pasa den urteko azaroaren 5ean eta 6an izandako uholdeek kalte handiak eragin zituzten Gipuzkoan, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan. Azken honetan kaltetuak izan ziren bederatzi herrik Nafarroako Gobernuak eurekiko izan duen jarrera salatu dute prentsaurrekoan, «ez baitu erantzunik eman kaltetuak mugitzen hasi diren arte, eta ustez onartu duten diru laguntza kalte guztia- ren %18ra baino iristen ez delako». Kaltetutako herrien artean daude Areso eta Leizta. Lehena- ren kasuan, 38.800 eurorainoko kalteak utzi zituzten uholdeek, eta Leiztan, berriz, 70.000 euro ingurukoak. Nafarroako ipar-mende- baldeko beste zazpi udalherriak kontuan hartuta, kalteak 471.000 eurokoak dira.

Lau hilabete baino gehiago igaro dira uholdeek kalte handiak utzi zituztenetik, eta epe horretan, Nafarroako Gobernuak hainbat sailletako ordezkarekin bil- du dira kaltetutako herrietako agintariak, kalteak ordaintzeko laguntza eskatzeko. Ur Algero Aresoko alkateak adierazi duenez, «inork arazoa beregain ez hartzeaz gain, ez dela hainbeste- rako izan, eta horri aurre egiteko dirurik ez dagoela esan digute».

## «Laguntza ez da nahikoa»

Egoera horren aurrean, kalteturi- ko bederatzi herriek indarrak bat- zea erabaki zuten, eta Yolanda Barcina Nafarroako presidentea- rekin bilera eskatu zuten. «Hila- bete igaro da ordutik, eta ez dugu inolako erantzunik jaso. Eran- tzun bakarria prentsaren bidez iri-



Azaroaren 5ean eta 6an izandako euriteek kalte handia eragin zituzten. Irudian, Areso. HITZA

tsi zaigu», azaldu du Algerok. Hain zuen ere, *Diario de Navarra* egunkariak martxoaren 7an argi- taratutako berriaren arabera, 88.782 euroko laguntza onartu du Nafarroako Gobernuak kaltetu- tako herrietzat.

Kaltetuei ez zaie egokia iruditu informazio hori jakiteko modua. «Nafarroako Gobernuarekin ko- munikatzeko baditugu beste bide

## Kaltetutako bederatzi herrik prentsaren bidez izan dute jasoko duten laguntzaren berri

batzuk, eta, are gehiago, eurekin gaiaren inguruan hainbat bilera egin ditugunean», salatu du Areso- ko alkateak. Horrez gain, diru laguntza ez dela nahikoa uste dute. «Albisteak zekartzan da- tuak kontuan hartuta, uholdeen kalteak erreparatzeko bideratu- ko duten dirua nabarmen ez da nahikoa izango, eta gainera, herri guztiek ez lukete laguntza jaso- ko». Salatu dutenez, «kalteen %18 baino ez luke erreparatuko

onartu duten laguntzak, beraz, gainerako %82, udalek euren gain hartu beharko dute».

Era berean, Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian kalteak jasan zi- tuzten herriek Madril eta Paristik laguntza jasoko dutela adierazi dute, «hondamen-eremu» izenda- tu zituztelako. «Nafarroako Go- bernuak, baina, ez du horrelako- rik egin. Izan ere, kasu horietan Madril edo Paristik diru lagun- tzen %50 iristen da, eta beste er- dia tokian tokiko gobernua jar- tzen du. Gure ustetan, ez zituen laguntza horiek eskatu kalteen erdia Nafarroako Gobernuak ez ordaintzeko».

## «Gu isilarazteko laguntzak»

Bestalde, emendakin bidez kalte- tutako herriei laguntzeko atal bat osatzeko eskaera egin zuten abenduan Nafarroako parlamen- tuan, eta atzera bota zuten. «Be- raz, larrialdietarako dirurik ez da egon, horrela erabaki dutelako; ez dute laguntzeko inolako boron- daterik erakutsi», dio Algerok.

Nafarroako Gobernuak onartu duen laguntza kaltetutako he-

riak nolabait «isilarazteko» dela uste du Ur Algerok. «Bederatzi herriak, hau da, Baztan, Leizta, Lesaka, Lakuntza, Goizueta, Igantzi, Etxalar, Uhartea Arakil eta Areso, batzen hasi ginen arazoi elkarlanean irtenbidea emate aldera, eta inguruko herri askoren babesa izan dugu; hori guztia ikusita, laguntza hori emate erabaki duela uste dugu».

## Leitzaldean, 108.000 euro

Laguntza ematea onartu duten herrien artean legoke Areso, bai- na bertako alkateak dioenez, ez dakite ezer laguntzaren kopu- ruaz. Aresoren kasuan, 38.800 eu- roko kalteak utzi zituzten uholde- ek. «Saiatuko gara beste diru la- guntzaren bat lortzen, baina inbertsioetarako zen dirua erabili beharko dugu kalteak konpontze- ko», azaldu du Algerok. Leizta ere diru laguntza emango duten he- rrien zerrendan dago. Hain zuen ere, 12.000 euroko laguntza da Na- farroako Gobernutik iritsiko zaien laguntza. Herri honetan 70.000 euro inguruko kalteak era- gin zituzten uholdeek.

## → Laburrak

### Atekarock jaialdirako sarrerak salgai daude

**LEITZA** ▶ Larunbat honetan, hilaren 24an, Atekarock musika jaialdiaren bigarren edizioa izango da Leitzako kiroldegian. Akatu, Kaotiko, Governors, Ze Esateki!, Tximeleta edota DJ Bull izango dira, eta Gaztetxeko Hip Hop gauean, 121 Krew, Goiene- txe anaiak eta Raperos de Emaus taldeak ariko dira. Sarrerak 16 euroan egunean bertan, edota aurrez 14 euroan eskura daitezke, Leitzako Torre- an, Villabonako Maxolan, Tolo- sako Denaken, edota kontu korronte bidez, *atekarock.blog- spot.com* helbidean. Autobusa ere jarriko dute Tolosalde- tik, eta joan-etorria 6 euro kostako da.

### Lan erreformaren inguruko hitzaldia, gaur, Aurreran

**LEITZA** ▶ Lan erreformaren inguruko hitzaldia izango da gaur, Aurrera elkarteak. LAB sindikatuak antolatutako hitzaldia herritar guztiei irekia da, eta 19:00etan hasiko da.

### Langostino moto elkartearen irteera

**IBARRA** ▶ Langostino moto elkartek bira egingo du igande honetan, hilaren 25ean. Hasiera batean eguro osorako ibilaldia egin asmo bazuten ere, azkenean, goiz bira egitea erabaki dute. Ibarrik 09:30ean irtengo dira, eta Betelu aldera abiatuko dira. Lekunberrietik eta Iruztundik pasata, Goñira iritsiko dira, eta han hamaiketako egingo dute. Handik Ibararako bidea hartu- ko dute.

### KZgunean tutorearen bisita izango da bihar

**IBARRA** ▶ Ibarako KZgunean, tutorearen bisita izango da bihar goizean. 09:00etatik 13:00etara izango da, erabil- tzaileen zalantzak argitzen.

## ◉ Hilberriak

## ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



### HIPOLITO ARRONDO AIZPEOLEA

Urtaberriak poza digu ikidu  
Amiñabarena etxean  
Zegamako zeru goienean  
maitasunak (ar) bat du pitu  
bihotza dugu malkotan  
anai HIPOLITO! agurik ez

Zure arreba eta ilobak

ZEGAMA, 2012ko martxoaren 21a



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	10°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** Geleda maskerakus-keta Topic zentroan, ekainaren 10a arte.
- **Tolosa.** AurrezAurre erakus-keta, apirilak 14a arte, Aranburu jauregian.

**DEIALDIK**

- **Amezketak.** Mendi Astearen barruan gaur, 20:00etan, Asier Izagirik bere azken sei zortzi-milakoak izango ditu hizpide.
- **Leitza.** LAB sindikatuak lan erreformaren inguruko hitzaldia antolatu du. Hitzordua gaur da, 19:00etan, Aurrera elkartearen.
- **Leitza.** Larunbateko Atekarock musika jaialdirako sarrerak Leitza Torrean, Villabonako Maxolan, Tolosako Denaken, edota kontu korronte bidez, [atekarock.blogspot.com](http://atekarock.blogspot.com)-en erosi daitezke 14 euroren truke.
- **Tolosa.** Larunbateko Herrira Eguneko bertso bazkarirako txartelak Villabonako Iratzarren, Anoetako Itzulin, Ibarrako Subegin eta Tolosako Rakun erosi daitezke. Xumai Murua eta Odei Barroso bertsoariak giro-tuko dute bazkaria.

**Irudia Villabona**



**PEDIATREN ETA ERIZAINEN BISITA, ESKOLAN**

Villabonako Fleming ikastetxeko haurrek herriko osasun etxeko pediatren eta erizainen bisita izan berri dute. «Eskolako hiru eta lau urteko ikasleak gorputzaren gaia lantzen ari direnez haiek in egin dute solasaldi emankorra. Oso gustura ibili gara!», esan dute irakasleek.

Besteak beste, haurrak pisatu eta neurtu dituzte eta fonendoskopia zer den ikasteko aukera ere izan dute. «Eskuargiarekin ezta-riak ikusi ahal izan ditugu... hau gozamen!», gaineratu dute Villabonako eskolako arduradunek. HITZA

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-  
nen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurak**

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●● **agurak**

**zure ziztada  
behar dugu**

Izan zaitez  
**berrialaguna**

Berrialaguna ekimena Tolosaldean sustatzen laguntzeko prest bazaude,  
**martxoaren 27an, asteartea, 19:30ean Tolosako kultur etxean**  
gingo dugun bilerara gonbidatzen zaitugu. Bilerara etorriko bazara, aurretik deitu  
687 530258 telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoa [tolosaldea@berrialaguna.tk](mailto:tolosaldea@berrialaguna.tk) helbidera.



**Tolosan etxe adosatua salgai:**  
eguzki-sua, lau gela,  
bi bainugela,  
komuna,  
egongela-jangela  
handia, sukaldea,  
bi autorentzako  
garajea, txokoa,  
jardina eta  
trastelekua.

Interesatuak, deitu  
**678 267657**  
telefono zenbakira.